

BASERRIA ETA PAISAIA

Pospolo kaiza bilduma batekin hasi zen dana. Eskualde bakoitzeko baserri tankera zekarren pospolo kaizak ekoizten zituen Estatuko Tabako Konpainiak, eta zalantzarik gabe benetako artezko obrak zirela aitor zitekeen. Pena da gaur egun horrelakorik ez gehiago ikustea. Zentimetro karratu batzuk baino ez zuen gunetxo horretan, etxearen arkitekturaz gainera, inguruetakoa paisaia jatorra ikusten zen. Hain politikak ziren kaizaren gaineko marrazkitxo horiek, non kolegioko esku lana irakasleak pirograbaketaz edo pinturaz irudi berdinak berregitea hautatu zuen hilabeteko gaitzat. Guhaurrek ikasleok eredu berezi behar genuela, Basa Nafarroan aitatzik duen baserria, naski, hautatu nuen. Ahantziko ez ditugun arren, eskolako oroitzapenak geure buruaren zoko seguru batean ezar ditzagun, eta aitatziren baserria deskribatzen has nadin.

Administrazio borroka luze baten ondotik Donapaleu udaletik banandu zen Garruzeko herrian dago aitatziren baserria. Gaur euren berjabetasuna berreskuratu nahi duten udal txiki edo ertainekoentzat adibide eta eredu ederra dugu Garruzekoa. Geure genealogia ikertu ondoren, Nafarra Garaiko Lizarratik heldu ziren gure arbasoak duela mende bat et' erdi; jakin genuenaren arabera Gerla Karlistengatik.

Benetan apartekoa da Garruzeko etxeen tankera, urte guztiz bertan egiten den kabalen merkatua bezain berezi eta ospetsua. Hemen Xarneguko etxeen tankera eta Nafarroaren Iparraldekoena atzematen ditugu: adreiluak, egurrezko habeak, orma zuriak eta zokoetako harri lodiak. Bi aldapatako teilatua du aitatziren etxeak: bata mendebalderantz, bestea ekialderantz. Etxaurrea hegoalderantz begira. Ezkaratz zabal bat dagoen beheko zatiaz gainera, bi solairu ditu horren gainean: logelak lehengoan eta bihiak gordetzeko ganbera bigarrean. Lehenago eguzkia gorroto genuen gauza bat bailitzan, leiho gutxi eta txikiak badira; baina ormen lodiera ikusirik, barneko giroa geure gorputzentzat egokia izan ledin leihoen txikitutasun hori ongi pentsatuta zegoela ohart dezakegu. Ate nagusia erdi-erdian dago, alderdi bakoitzean leiho bat duela. Sartzeko harri sendozko bi mailadi igo behar ditugu. Zirkulu erdi baten forma badu atearen goiko zatia; benetako harri gotorrez apaindua, ongi ikusiz gero mailadietakoek duten jatorri berekoak. Horren gainean, paretari josia, Nafarroako kateak dakarren harri fin bat, aitatziren aitak berak omen egindakoa. Atea bera haitzezko taula lodiez egina da, burdinazko iltze sendoek apainduta. Behealdeko paretak harrizkoak dira, gainetik kare zuria margoturik daudela. Bigarren eta hirugarren solairuetan aldiz, guztiz aldatzen da itxura. Lehenik beheko zatia baino txit batez luzeagoa da. Horrela handiago geratzen da etxeko zabalera osoa, eta egoitzari dagokion zerga kalkulatzeko lurrean bertan neurritzen den zabalera kontutan hartzen zenez gero, zerga goratu gabe emendatzen ahal zen etxeko bizi gunea. Hori da garai zaharretako "optimizazio fiskala" baina kasu, ez zen faltukeria edo zerga izurri bat! Goiko paretan egurrezko habe bertikalak dira nagusi, haien artekoa bertako biztanleek egindako adreilu txikiak badirela.

Ganberaren mailan itxura berbera badu etxeko aurreak; leihoak berriz askoz txikiago dira. Alde bakoitzean eta erdian behetik goraino doan harrizko zutabe bat, etxeko egitura nagusi eta oinarritzko eratzen duena.

Orain arte heia edo kabalaren tokia ez da aipaturik izan, baina bertako aditu batengandik jakin genuenaren arabera, Napoleonek eragindako gerla denboran desagertu zen. Inperadorearen osteez bertako etxeko jaunari ezer eskatu gabe, bereganatu zuten, hor zegoen kabala lapurtuz eta gero lekua erabili zuten Frantziako armadaren zaldi, behor eta mandoak ezar zituzten. Napoleonen gerla Estatuko arrazoi sakratua omen zen! Gero Espainiatik etorritako ingeles eta espainiarren tropek dana suntsitu zuten. Orduan behitegi eta arditegi berri bat eraiki zituen Hego Aldetik helduriko arbaso karlistak. Hogei behi eta berrehun ardientzako tokia badago gaur egun, eraikin luze eta zuri horretan. Beste denbora batekoa izan arren, etxe nagusiaren tankerari eta paisaiari ederki dagokio.

Baserriaren inguruan hektara bateko lurralde bat hedatzen da, eremu nahiko leun batean. Errepidetik baserriaren ateraino zabaleran hiru metroko dituen harrizko bidexka bat, bi

aldeetan amatxik landatu eta zaintzen dituen lorez hornitua. Baserriaren eremuko zoko batean aintziratxo bat badago, duela mende pare bat adreiluak egiteko behar zuten buztina gure arbasoek atera zuten lekua hain zuzen. Lehenago baserriko zabortegia eta ur zikinen biltokia bazen ere, orain oso garbia da, hiriko etxe guztiak duten zerbitzu guztiak lortu dituztelako baserriek, urrutiko mendietan dauden batzuk ezik. Aintziratxo hori etxeko ahate eta antzeren paradisua dugu gaur egun; gauaz igelen kantuek aparteko xarma ematen diote gure bizitokiari. Pentsatzen dudalarik oraingo jendeek auzokoa epaitegietara eramaten dutela, haien lurraldean dauden igelek edo beste abereek "ezin jasanezko " zalaparta egiten dutelakoan, sutan jartzen zait barnea! Baserriko xarma gorroto duten jende horiek hirian gera daitezela eta kito! Udazkenean eta udaberrian basa ahate, antzara eta lertxun migratzaileen pausa lekua da gure baserriko aintziratxoa; hainbeste kilometro hegaka bidaiatu ondoren, deskantsatzeko leku baten beharra dute, eta sekulan ulertu ez dugun zio batengatik gure aintziratxoa hautatzen dute urtean bi aldiz. Hor egoten dira gure etxeko beste lumadunekin, bertatik sekulan irten ez direnekin, gureek migratzaileengandik urruneko lurraldeetako berriak jakin nahi balituzten. Hor geratzen dira modu baketsuan, abere mota bakoitza bere hizkeran ari delarik.

Aintziratxoaren mendebaldean gure hegaztiak itsasaldeko haize gaixtotik gerizatzen dituen kanaberez egindako sasi altu bat badago, ilunabarrean eguneko txorien babeslekua bihurtzen dena. Eguzkia sartzerakotan zer kontzertu ederra entzuten dugun hortik; hain politikak dira tenore honetako txori xaramelak, non amodiozko kantuak ala toki baten atzemateko borroka kantuak direnik ez baitakigu. Hautzarroan eguneko unerik hoberena nuen kantu horien aditzen nituelarik, ezkaratzeko mahai inguruan senideekin eseri baino lehenago. Lur eremuaren mendebaldean segurik baserria baino zaharrago diren lau haitz sendo badira, hor zut-zutik aspaldiko babesleak bailiren. Goizero pixkanaka zerurantz igaiten ari diren eguzkiaren izpiek igorritako argia irazkitzen digute. Gure lurraldearen bestaldean aroko igaliak ematen dizkiguten zuhaitzak baditugu: ia mende bateko intxaurrendoa, gereziondoa eta lau sagarrondo. Gure lurraldearen iparraldea elorriez egindako sasi luze batek mugatzen du. Hortik hartzen genituen txikitana masusta beltzak. Horiek baitziren gure bazkalondoren osteko bigarren bazkalondoa eta askotan lauetako krakada edo askaria. Ugariago ziren denboretan, saskiak betetzen genituen eta ahantz ezin ditzakegun konfitura goxoak egiten zizkigun amatxik. Beste toki batean mizpirondo batzuk baziren, zeinetatik aitak eta aitatzik et gero guk ere geure makilak egiteko adar zuzenak hautatu baigenituen.

Gure etxeko lehengo pisutik dakusagun bista ezin ederrago: Nafarra Beheko mendietan altuena den Okabeko gailurra ikusten ahal dugu, eta han, urrunago, zerua nahiko argi delarik Basaburuko mendiek gure begiak zoratuz gainera, gogoak sentimendu eta zirrara on eta baikorrez betetzen dizkigute. Gure etxeko ingurua polita izan arren, denbora baterako uztea eta mendilerroetan itzuli bat egitea konbidatzen gintuzten urruneko kasko horiek. Iratiko oihanean bilduriko ahabiak baditugu gogoan gure etxetik Auñamendietarantz begiratzen ari garelarik.

Formika eta sasi modernitatearen moda zelakoan, momentu batean gure bidexka asfaltoz estaltzeko eta landaretza murriztea gogoan ukan zuen aitatzik. Baina eztabaida luze eta gogor batzuen ondotik, hain leku ederra okertzea zozokeria bat izanzen zela konprenitu zuen.